

Napartheid komiki jaia Monterronen

ARRASATE ^{PRESS}

1992ko urriak 2

163. zenb.

Elkarrizketa
Zorione
Balanzategi
Maltzaga-Urbina
Politikariak
mintzo

Maritxu Rajoi
gau dotorea

Hau bai miraria, **ARRASATE**^{PRESS} **BERRIA!!!**

3. ADINALDIA URRIA

DOHAINEKO begi berrikustapena.

Betaurrekoak kristal eta guzti,
urruti edo gerturako, **6.950.**

Bifokal betaurrekoak, **9.950.**



Ibargarai, 16 Tfnoa: 76 15 75 **BERGARA**
Juan Karlos Gerra, 1 Tfnoa: 79 29 95 **ARRASATE**
J. M. Barandiaran Plaza. Tfnoa: 88 99 88 **ORDIZIA**
MULTIOPTICAS taldeko bakarra
DEBA eta GOIERRIrako.

MUSAKOLA OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

Txitxinpe

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak


Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

LORATEGI taberna

Iturriotz, 7
Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

Memesa

79 42 22



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Clos-Luceko gaztelua: Ongietorria Leonardoren etxera

Nire aurrean sarrera hartu zuen neska-aren atzetik ibili nintzen bisitak iraun zuen denboran. Clos-Lucéko gelak bisitatu ondoren, Leonardo da Vinciren asmakarien gelara abiatu ginen. Nire bisitarikidearen jakingura ase ezina zen eta ormetan zintzilik zegoen oharrari jaramonik egin gabe makinak martxan jartzen zituen. Ni haren konplize bihurtu nintzen atzetik jarraitu bait nion tramankulu haiek martxan ikusteko jakinminak jota. Han, hainbat eta hainbat makina osatzeko erabiltzen ziren oinarritzko mekanismoak ikusi ahal izan nituen: poleak, gupil horzdunak, ura ateratzeko tramankulua... Mekanismo haiek sortu ezezik zenbait makina aurrikustera ere heldu zen Leonardo: areoplanoa, automobila, submarinoa diseinatu zituen, besteak beste.


Clos-Lucén ikusgai dauden maketa guztiak IBMek eginak dira, Leonardok berak burututako krokrisen arabera burutuak, alegia. Baina guzti hau Clos-Luceko gazteluan ikus daitekeenaren zati bat baino ez da. Bertan igaro bait zituen Leonardok bere bizitzako azken urteak Frantziako erregeak, Frantziako I-ak, gonbidatua.

Historiak kontatzen duenez mando baten gainean, Italiatik Parisa abiatu zen Leonardo, berarekin hiru oihal zeramala: bata Florentziako dama gazte baten kuadroa, Gioconda famatuarena, alegia, bigarrena Santa Anarena eta hirugarrena San Juan Bautiatzailearena.

Leonardo da Vinci Historian aipagarria ezezik gaurkotasunezko pertsonaia dugu eta horrela ikusi dute Europako kazetaritza puntan dauden zenbaitek ere. Dakigunez, Sevillako "Expo 92"-arekin batera Europako lau egunkari famatuk, *El Pais*, *La Repubblica*, *The Independent* eta

Le Monde, elkartu eta ale bakarreko aldizkaria argitaratu zuten. Etorkizuna alderdi eta zientzia desberdinetatik aztertzea da ale honen helburu. Zein izen jarriko eta, Leonardo bataiatu zuten. Behar bada, Leonardorengandik bi ardatz eredu-garri jaso nahi izan dute: bata ikuspegi unibertsala, errealitatea zientzia guztien ikuspegitik begiratu eta aztertzea, eta bestea, etorkizuna aurrikustea. Dena den, Juan Luis Cebríanek bere sarrera-artikuluaren esaten duen bezala, XX. mende honetan, jakinduriaren hedapenak eta komunikabideek pertsona unibertsal hau garatzea oztopatzen dute. Bestalde, eta etorkizuna aurrikusteari dagokionez ere, ez da oso baikor agertzen. Beraz, ez uste bazterretan, zoritxarrez, Leonardorik ikusiko duzuenik, astotik mandora gabiltza, ibili ere eta!

MATILDE SAINZ OSINAGA



ZUBIKARAI

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oñden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Xabier Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrañaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.


Azalako argazkia: Jabier



AMETS TAILERRAK

HERGO karabanen
banatzailea

ZUEN KARABANAK
ATERPEAN GORDETZEN DITUGU



Berezano auzoa. OÑATI
Tfnoa: 78 25 92 / 78 19 50

IR TABERNA TI

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80



Alkoholarekin arazoak
dauzkazu?

Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!

**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

Gelma: Laneko osasuna edo hutsaren hurrena

Antza denez, istripu latzak gerta arte —GELMAN beste edonon letxe—, inork ez du ardurarik hartzen osasun zein lantegiko segurtasun neurrietaz.

Dena dela, hau ez da txirripaz gertatzen, kontutan hartzen badugu GELMAko enpresariari gehiago axola zaiela fatxada margotzea edo langileak esplotatzea bost axola zaielarik barauen osasuna!

Honen argigarri, zenbait irregulartasun:

— Lantegiko botikina 8 orduko "txanda arruntean" dago zabalik, langileak 3 eta 4 txandatan dabilzan artean. Beraz, gaueko 12etan ixtripurik gerta ezker: botikina bai, baina zertarako?

— 6 hilabete baino gehiago dira "Ziurtasun eta Garbitasun Komitea" elkartzen ez dela, eta hau nahiz eta laneko ziurtasunean... "anomalia" askotxo daude: nahiz eta Lan Inspezioak entepesa abisatu duen, delako Komite hori hilean behin bildu dadin!

Guzti honen ondorioz, iragandako Irailaren 16an eta ziurtasun barandila bako grua batetik, mantenimendu langile bat jausi zen. Ondorioak: Langileak larriko zauriturik.

Arazo honen aurrean eta Entrepresako Komite zein Zuzendaritzaren pasibotasuna ikusirik, salatzea besterik ez zaigu geratzen.

Osasuna ez da saltzen, baizik eta defendatzen!

GELMAko ESK

Ordiziatik

Kaixo!
Zuen aldizkari horrek eskaintzen digun abadaguneaz baliatu nahi dugu, batetik horrelako parada bikaina eskertzeko eta bestalde arrasatear guztiak agurtzeko, Maritxu Kajoren jaiegungo gogoangarria dela eta.

Guk, Ordiziarrok badugu egun honentzat aparteko begirunea eta itzelako ilusioa, eskaintza-egun horretara joanez daramagun urteetan zehar, zuekin lortu eta lotu ditugun adiskidantza eta elkartasunaren ondorio izan bide direnak.

Aurten ere zuekin egotea espero dugu eta elkarrekin ospatuko eta gozatuko dugu jaia, bertako berri Ordiziara ekartzeko bidea izanez. Badirudi horrela ez gaudela hain urrun elkarrengandik.

**Ordiziako Maritxu
Kajoi zaleak**

Herriko Plazan futbolean

Kaixo herriari:
Eskutitz hau idaztea pentsatu dugu herriko plazan ez digutelako futbolean jolasten usten. Guk plazan bederatzirte daramagu futbolean jolasten. Zortzi urtetan ez digute ezer esan, baina azkenengo urte honetan, egundoko sermoiak entzun behar izan ditugu. Indar haundiz botatzen dugula baloia esaten digute, baina hori ez da askotan gertatzen, noiz behinka bakarrik.

Espero dugu arazo hau ondo konpontzea.

**Herriko plazan
jolasten
ibiltzen garenok**

Kaixo irakurle!

Eskuetan duzun hau, gure irudimenak eman duen ARRASATE PRESS berria da; zure gustoko izatea espero dugu, irakurle, eta atsegina ez dituzunak edo ideia berriak ekarri nahi izanez gero, badakizu non gauden. Bitartean, eskerrik asko zure arretarengandik eta segi irakurle fin!

ARRASATE PRESS

Onduline TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erriko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3
ARRASATE

Zer mirari eskatuko zenioke Maritxu Kajoiri?



AITOR APERRIBAY
Ingeniaritza ikaslea
(21 urte)

Egun horretan gehien gustatzen zaidana ardoa irtezea da eta eskatuko nioke euririk ez egitea.



ELENA LANDA
Etxekoandrea
(49 urte)

Gazteria piska bat frenatzea lortzen badu, nahikoá da.



ANGEL ALONSO
Mabel erropa dendaria (31 urte)

Euskadiko ekonomia maila igotzea ahal den mailan.



MARIAN ROMANO
Ume-zaintzailea
(24 urte)

Nik ez nioke ezer eskatuko. Jai hori berez ez zait gustatzen eta horregatik ez diot ezer eskatzen.



MARIA AMADO
Etxekoandrea
(55 urte)

Nik ez dut irtengo egun horretan baina bakea egotea eskatuko nioke, munduan bakea izatea.



ANGEL RIEGO
Sukalde-montatzailea Fagorren (43 urte)

Egun horretan ondo pasatzea eskatzen diot.



BELEN TXINTURRETA
Mankomunitateko idazkaria (33 urte)

Denok lana izatea, lanpostu bat izatea.



ASIER GARTZIA
Elektronikako teknikaria (20 urte)

Euririk ez egitea, urtero egiten du eta.

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketak eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) ARRASATE Tfnoa: 79 93 07

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK



77 05 65

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritotxoak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igualarioria 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizoniak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako anbulantziak 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 79 05 81
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 73 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearen Lakozko informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala
 Egunez: J.A. Irizar, Erguin.
 Gaeuz: Estella, Matxiategi.

Larunbata
 Egunez: Amezua, Santa Marina.
 Gaeuz: Mozos, Pedro Deunaren.

Igandea
 Egunez: Aurora Ruiz, Maalan.
 Gaeuz: Mozos, Pedro Deunaren.

Astolehena
 Egunez: A.M. Morales, San Andres.
 Gaeuz: Camacho, Oxirondo.

Asteartea
 Egunez: Alberto Azkoaga, Ferrerias.
 Gaeuz: Puy, Barrenkale.

Asteazkena
 Egunez: S. Español, Iturrioz.
 Gaeuz: Gualjar, San Antonio.

Osteguna
 Egunez: M. Corcuera, Musakola.
 Gaeuz: Estella, Matxiategi.

2 OSTIRALA

IKASTAROAK
 Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruko "Emakumea eta lana" ikastarorako izena emateko azken eguna. 304 orduko kurtsoa.

JAIK
 Naparteheid jaialdia. 4etan umeak, Getatik gazte eta helduak. Goizean 200 pezeta eta arratsaldean 500.

Maritxu Kajoi. 7etan txikiteoa.

HIRUGARREN MUNDUKO ASTEA

Hirugarren Munduaren astea Aretxabaletan. Diapositibak 8etan Arlutzen.

ELKAR-ENTZUKETA IKASTAROA

Urriaren 10, 11 eta 12an Elkar-entzuketak ikastaroa izango da Aramaion. Irakasleak Eneko Landaburu eta Esther Riego izango dira. Prezioa 10.000 pezetakoa da, ostatua eta janaria barne. Izena emateko telefono hauetara deitu dezakezue: (943) 77 04 98 edo (945) 44 53 65.

NAFARROA OINEZera

Urriaren 11an Bianan ospatuko den Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu du AEDk. Txartelak salgai daude AED, Hire eta Iturriotz-en. Datorren ostirala, hilak 9a baino lehen erosi beharko dira. 750 PTA. Autobusa 8.30etan irtengo da Zaldibartik.

3 LARUNBATA

ZINEA
 Alai: "Arma letal" (5-7.30-10)

KONTZERTUA
 Kafe Ateneoan country eta bluesgrass kontzertua gaueko 12etan. La West taldea.

ZINEA
 Elorrioko Arriola kultur aretoan, "Jugando en los campos del Señor" pelikula, gaueko 10etan.

LANBIDE HASTAPENAK IKASTURTE BERRIA

1993ko urtariletik abendura bitartean 1.100 orduko ikastaroak antolatu ditu Arrasateko Lanbide Hastapenak. Bi aukera desberdin aipa daitezke: lehenengokoa, elektrizitatea, haroztegia eta mekanikaikasiko litzateke eta bigarrenengoa, sukaldaritza, ofimatika eta artisaingintza. Deba Garaiko udalerriren baten errolatua egotea, langabetua izatea eta 16-17 urte izatea dira beste behar diren baldintzak. Urriaren 23a arte eman daitezke izena.

4 IGANDEA

ZINEA
 Alai: "Arma letal" (5-7.30-10)

KILOMETROAK 92
 Oartzunen kilometroak. Auto busak 9etan Zaldibartik. 750 PTA.

GAZTETXEA BERRIRO IREKITA

Obrak bukatuta daude la eta, hilabete pasa ondoren, Gaztetxea berriro irekiko da gaur. Gazteek, ganorazko barra jarri, eskenategia handitu, aretoa murgortu eta zeuden zuloak estali egin dituzte. Dirudienez, atekaldatzeko asmoa ere bazuten, baina dirua bukatu zaienez, hurrengorako utzi dute. Obrak gazteak eurak ibili dira lanean eta erabilitako diru guztia euren zen. Zaratak medio auzokideekin eta Udalarekin duten auzia konpontzeko egin behar duten bilera burutu arte, gazteek sinadurak biltzeari ekin diote.



5 ASTELEHENA**ZINEA**

Alai: "Arma letal" (5-7.30-10)

YOGA

Arrasateko Yoga Elkartean. Hasi-erako yoga, astelehen eta asteazkenetan. 79 35 76.

KONTSUMO-MASTERRA

UNEDen Kontsumo-masterrak, matrikula zabalik. Prezioa 250.000 pezeta kurtsoko. Plaza mugatuak.

6 ASTEARTEA**ZINEA**

Alai: "Arma letal" (5-7.30-10)

HITZALDIAK

• Elorrioko Arriolan "V. Centenario, ayer espolio, ¿hoy?", Julio Araluzeren eskutik. 15etan eta 20etan.

• Maastrich. Jesus Albarracin ekonomilariarekin. Arratsaldeko 7etan Monterronen. ZUTIKek antolatuta.

SUKALDARITZA IKASTAROA

Lehen eguna, 28ra bitartean. Aberto Elorza da irakaslea. AEDko lokalean.

7 ASTEAZKENA**YOGA**

Yoga ikastaroa hasten da. Irakaslea Jose Luis Armentia. AEDko lokalean, arratsaldeko 3.30etan.

8 OSTEGUNA**ZINEA**

Alai: "Sonambulos" (5-7.30-10)

GURASOEN ARTEKO TOPAKETAK ETA TAILERRAK

Arrasateko Udalak, Drogomenpekotasunen Prebentziorako Zerbitzuarekin, gurasoen topaketak eta tailerrak antolatu ditu. Topaketak bi orduko sei saiotan antolatuko dira eta egun bakoitzean gai desberdina jorratuko dira. Gurasoak 20ko taldetan jarrita aztertuko diren gaiak honako hauek izango dira: Psikologia Ebolutiboa, Famili eta Eskola,

Sexualitatea, Aisialdia eta Mundu Zabala, Drogomenpekotasuna eta Prebentzioa. Bestalde, tailerretan eguneroko elkarbizitzaren iharduerak aztertzea da helburua eta 15 saioko ikastaroak izango dira. Eztabaidako taldea, hitzaldiak eta teknika partehartzaileak sustatzea da erabiliko den metodologia. Izena emateko epea urriaren 14ra bitartean egongo da zabalik.

ZALDIBARKO FUTBITO TXAPELKETA

Maritxu Kajoi bixamonean, Zaldibarko txapelketa hasiko da. 72 ekipok eman dute izena bertan jokatzeko. Larunbat eta igandetan izango dira partiduak; ohi denez gazteek kirola egiteko aukera aparta beriz ere. Beraz, ez ahaztu futbolzaleok, larunbat honetatik aurrera, futbolen jokatu eta ikusteko aukera Zaldibarren duzuela.

MASAIA IKASTAROA

**Arrasateko Yoga elkar-
teak ikastaro bat
antolatu du datorren
10, 11 eta 12rako.
Elgoibarko San Pedro
auzoko Aubixa barnete-
gian izango da eta
gorputz osoko masaia
ikasiko da. Inskripzioak
79 35 76 telefonoan.**

ATBK PROGRAMAZIO BERRIA

Datorren astetik aurrera ATBk programazio berria jarriko du martxan. Berrikuntzen artean, musika, gazteei zuzendutako programak eta hizkuntzak ikasteko aukera dira aiparrienak. Eguerdiko 1.30etan hasiko da programazioa informatibo berri batekin, ondoren ingelesa eta euskara ikasteko aukera izango duzue, eta gero natura eta ekologiako dokumentalak, gaueko programazioari emango dio paso. Gauean ere badira programa berriak eta galdu ezinekoak, astelehenetan kirolzaleentzat, "Mondra Sport", asteartean "Larrugorritan", asteazkenetan iritzi programak, "Tertulixa" eta "Pareak jokuan" programekin; ostegunetan gure lehiaketa paregabea, "ATBketan" eta ostiraletan azkenik, rockeroentzat, "Monterock". Eta hau gutxi bada, astebukaeretan programazioak bere martxa jarraituko du, asteko laburpe-
narekin, pelikularekin eta Mondragolekin.



“Kooperatiben inbertsio-jokaera ezberdina izan zen. Eroskin inbertsioek %43an gora egin dute eta talde industrialean %21eko jeitsiera gertatu zen, ekitaldiaren izaeraren adierazgarri. Langilegoari dagokionez, ez da ia aldaketarik izan. Talde industrialaren eta Lan Kide Aurrezkiaren artean ia 23.000 langilerekin itxi zen ekitaldia”.

Cesar Coca.

información

“Plusiorik gabe nago, izan ere, behi argalen garaian gaude. Krisi garaia da gure kooperatiba taldean, ez ekonomikoki bakarrik, baita ideologikoki ere. (...) Dena da beharrezko krisiari aurre egin nahi bazaio, garai zailei aurre egiteko, gero eta sarriago izango dira eta. Heziketa, lana, aurrezkoa eta inbertsioa dira edozein enpresarentzako irtenbidea. Eta aurrikuspena. Baina heziketa integral batek segurtatu egingo lituzke beste faktoreak. (...) Animatu, bultzatu, hezi, hitzegin, kontrastatu, kontsultatu, iritzia eskatu, esigitu, arrazoitu... egin behar da. Kooperatibak baditugu, zenbat urtetarako ez dakidan arren. Baina ez dugu kooperatibistarik. Eta horiek ez dira jaiotzen, egin egiten dira”.

Jose Ramon Elortza. *Waila.*

TRU lankide

“Eritzi mota guztien elkargune eta adierazpenerako leku errebindikatzen dugu kalea, monopolio legalista eta zentsurarik gabe, askatasun osoz edozein gai iruzko debate soziala pizteko. Kultur florituratik haruntzago doan konpromezu-arte baten alde, gure adierazpen-askatasunaren eta askatasun artistikoaren errespetua esigitzera itzuliko gara Iruñeara. Kanean lan egingo dugu, eta ez dugu baimenik eskatuko, jakina.”

Tunantes del Norte antzerki taldea.

egin


Paper birziklatuaren alde egin duzue erakundeetan, zergatik?

Paper asko gastatzen da, batez ere instituzioetan, eta erabiltzen den gehiena normalean paperontzira joaten da azkenean, tonelada guzti horiek erre beharrean birziklatu egin beharko lirakekeela uste dugu. Planeta osoan, zuhaitz mota guztien egoera nahiko larria da, natur baliabide guztiak azkar ari dira agortzen. Horren aurrean, nolabait suntsitze prozesu horri freno jarzeko, birziklaia irtenbide egokia da. Naturan eragiten den gastu handi hori eteteko, birziklaia da neurri egokiena.

Paperaren erabileran ere, zer esanik badugu, toki gehienetan papera alde batetik bakarrik erabiltzen da eta. Erabilera hori orrien bi aldetara zabaldu beharko litzateke, eta hala eta guztiz ere, gero birziklatu. Gainera, kontuan hartu behar da, paper birziklatuaren teknologia asko aurreratu dela eta gaur egun mota guztietako paper birziklatuak aurki daitezkeela, baita fotokopiatu eta inprimatzekoak ere, eta gainera prezio eta kalitate onean.

Beste gai askotan bezala, paperaren birziklaketan ere administrazioak eta erakunde ofizialak eman beharko lituzkete lehen urratsak, horregatik papera birziklatzeko eskaria luzatu diegu Deba Garaiko Udala Elkarteari eta Bergara eta Arrasateko Udalei. Bailarako gainontzeko udalei luzatuko diegu eskari bera, baina aipatutakoak zer erantzuten diguten ikusiko dugu lehenengo.

Ez dakit erantzuna nolakoa izango den, baina entzun dudanez, Udala prest egongo litzateke paper-bilketarako kontenedoreak jarzeko, nahiz eta garraiatzeko arazoren batzuk izan.



Felix Elortondo

Eguzkiko partaidea.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

**Konponketak
Iturripeko kiroldegian**

Iturripeko Kiroldegiko erreka ondoko zutabeburuak konponketak egitearren Udalak 290.000 PTA ordaindu behar izan ditu. Gogora daitekeenez, aipatutako zutabeburuak ganberroren batzuk apurtu zituzten urtarilaren hasieran, baita bertan landatutako zuhaitz txiki batzuk ere. Broma ederra! batzuk egindako kalteak besteok ordaindu behar.

Udazkenarekin batera ordua aldatu

Joan den astean eragin handia izango duten bi aldaketa bete ziren: alde batetik, irailaren 22an udazkena iritsi zen, gaueko 22.40an; bestetik, larunbate-tik igandera ordua aldatu zen, goizeko 3tan erloju guztiak 2etara aldatu behar izan ziren.

Taxi zerbitzua gutxitu fisikoentzat

Hilabete honetan, Mankomunitateak gutxitu fisikoentzat taxi zerbitzu berezia jarriko du eta erabiltzaileek bonoak izango dituzte. Orain arte, lan hori DYako autobus batek betetzen zuen, baina gutxiegi denez, martxan jarri da hemendik aurrera Eurotaxi izenez ezagutuko den zerbitzua. Gipuzkoan, horrelako zerbitzu bakar bat zegoen, Donostian.



Iñurrategitarak Everesten, poza Aretxabaletan

Felix eta Alberto Iñurrategi Everest-era igo izana, izugarri-zko pozez hartu zen bailara osoan. Jose Ramon Zubizarretak, berria emanez egindako deia, berehala zabaldu zuten komunikabideek, baina-benetako festa Aretxabaletan. Aurtengo San Migelek Murruxion izan zuten punturik gorena. Ea ondo bueltatzen diren eta festa hiru protagonistekin batera egiten den.

**Jaialdi bikainak
Monterron parkean**

Zaldibobo eta Akoka
Iparraldeko musika taldeen kontzertua ikusteko, 200en bat lagun bildu ziren joan den ostegunean Monterron parkean. Musika aldetik, kategoria handiko taldeak zirela erakutsi zuten, baina argiteria izorratu zitzaient eta, behar bada horregatik, ezin izan zuten giroa berotu. Asteguna izateak ere, izango zuen eraginik hortan.

Ostiralean, berriz, Bergarako *Taun-Taun* txotxongilo taldearen emanaldia, Monterronen bertan. Bezperan bezala, 200 ikusle gutxi gora

behera, hego haize epela nagusi eta maila handiko ikuskizuna, gal ezin daitekeen horietakoa.

Andaluziako etxeen federakundearen bilera

Igande goizean, Al-Andalus Elkartearen Andaluziako Etxeen Euskadiko Federakundearen bilera burutu zen. Gairik nagusiena, estatutuen aldaketa, beste talde batzuk federakundearen sar zitezten. Eztabaida luzeen ondoren, proposatutako aldaketak aztertzeko batzorde berezia osatzea erabaki zen. Horretaz gain, 1993an Euskadi

mailako jaialdiak eta kultur ihardunaldiak antolatzen akordiotara iritsi ziren. Goizeko 11etan hasi eta arratsaldeko 4etan bukatu zen bilerara, Euskadiko 11 zentruetako 22 ordezkari etorri ziren.

Manifestaldia Gudari Egunean

Igandea Gudari Eguna zen, eta beste zenbait herritan bezala, manifestaldia burutu zen Arrasaten ere. Manifestaldia arratsaldeko 7.30etan hasi zen. Ehundaka pertsona bildu zituen aipatutako manifestaldirako deiak.

Ziburu berriak Santa Barbaran

Santa Barbara parkearen inauguraziorik ez da egin, baina hala ere herriko umeek ederki aprobetxatzen dituzte han jarritako zibururuak. Eskolaz kanpoko orduetan, eguraldiari jaramon egin barik, hesi gainetik pasa eta han ibiltzen dira.

JAIOTZAK

- Asier Murguzur Bolinaga, irailaren 20an.
- Andoni Aizpurua Moreno, 26an.

HILDAKOAK

- Mariana Marcos Farto. Irailaren 28an. 75 urte.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

**Durana, 12
ARETXABALETAN**



ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



RICARDO OLEAGA*

Etxekoandreekin erabakitzeak daukagun auzia

Inori ez zaio interesatzen etxekoandreen arazoez serio hitz egitea. Nahiz eta behar-beharrezkoa izan beroriez ihardutea; asko direlako, eta beren bizimoduarekin gustora ez daudelako. Eta etxekoandreen arazoak aztertu edo lantzerakoan, edo beroriei buruz hitz egitean, egin dezagun mesedez telebellekin, Irrati edo TBko lehiaketekin, detergente edo bihotzeko aldizkariekin erlazionatu gabe. Uxa ditzagun topikoak, ze errealitatea topikoetatik eta estereotipoetatik oso urruti ibili ohi da ia beti. Disziplina desbesdinetatik (ekonomia, soziologia, kontsumoa, politika, osasuna, psikologia, zergarautegia, gizarte-segurantzza, etab. etatik) aztertu beharra dago etxekoandreen izantza egituratzen duen

errealitate konplexua, ezin ulertzeko moduan iluna den espazio bat ahal den neurrian argitzeko, edo, hitz batean esanda, "zer gertatzen da etxekoandreekin?" galderaren atzean ezkutatzen den guztiari erantzuteko, ze, erantzun hori ez da "asko dira eta gutxi kexatzen dira daukaten arazoia edukita" bezalako esaldi atsegin batetara mugatzen.

Bai kontsumitzailearen formazio ikastaroetan eta etxekoandreez atontolatu-

.....

Errealitatea topikoetatik eta estereotipoetatik oso urruti ibili ohi da ia beti.

tako batzar espezifikoetan, bai oraindik orain kaleratu dugun liburu baten argitalpena prestatzerakoan ere etxekoandreekin izan dugun esperientziak eskubide ematen digula uste dut gizaritatearen aldetik gutxiegi baloratutako kolektiboak dela, fiskalitate aldetik diskriminatua (errenta senarra eta emaztearena erdibana izan arren, soldata duenak bakarrik deklaritzen du), eta ekonomia aldetik ez direla aintzakotzat hartuak (ez dira biztalaria aktiboa bezala kontsideratuak) esateko, nahiz eta beren lana behar-beharrezkoa eta ezinezkoa den ezagutzen dugun ongizateko bizitza horri mila puska egin gabe eusteko.

Galde diezaiegun gure amei edo emazteei, irrikatzen daude pixka-pixka bat aditu nahi dienari beren barrua hustutzeko, beren buruez eta zorionaz zer pentsatzen duten botatzeko.

Eta, saia gaitezen erakunde mailan hartzen diren neurriak etxekoandreek besteengana iraulitako bizitza osoan zehar ematen dutenaren eta hartzen dutenaren artean dagoen balantze latza orekatzera jo dezaten. Urte askotxoan, gehiegitan beharbada, mespretxatu izan dute bizitza besteentzat bizitzearen eta norberarentzat bizitzearen arteko oreka bat dagoen neurrian bakarrik izango dela atsegina dioen esatera.

* Eroskiko Kontsumo Departamentukoa.

USTEAK USTE

MARITXU GAUA

Maritxu Kajoi heldu zaigu! Ez dakit zergatik deitzen diogun Maritxu Kajoi Eguna. Aldrebes samar deritzot. Zer irudituko litzaiguke Gabon eta Gabon Zahar izenak kendu eta horien ordeztu Eguna eta Eguna Zahar esatea? Ez, ez luke zentzurik izango.

Badaude oso garrantzitsuak diren gau batzuk. Nortasun handiko gauak Maritxu Kajoi kasu. Eta hemendik aurrera jai honi Gaua eta ez Eguna deitu beharko geniekela jai honi esatera natorkizue.

Urte zailak ezagutu arren, zutik dirauen gaua, betikoa. Fantastikoa, apartekoa. Antzinako jantziak gogora erazten dizkigun gaua. Originaltasunari aukera ematen diona. Dotore irtetera bultzatu eta animatzen gaituena. Gorbata eta trajearen errebindikapen gaua.

Benetan gozatzekoa. Izan ditzakegun prolemak ahazteko jai. Eta gurekin ez daudenak gogoan edukitzeko gaua.

Jai zoroa, jai erakargarria. Gau gazte zaratatsua. Txikiteoaren gaua. Eta urteroko mirariaren gaua.

Ongi etorri gau zoragarrari honetara!

J.R. ELORTZA

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

URONDO elektrizitatea

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argitapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxes: 77 14 76 ARRASATE

Maltzaga-Urbina proiektua, zer diote herriko politikariek?

Azken aldean, Maltzaga - Urbina errepedeaz asko hitzegiten ari dira politikariak. Eztabaidaguneak ugari: Maltzaga - Urbina edo Etxegarate zeharkatzen duen errepedea zein lehenago egin, Maltzaga - Urbina egitekotan nondik, autopista edo autobide, peajea edo peaje barik....

Errepedeak zeharkatuko lituzkeen herrietako ordezkariak ere, badute eritzirik, eta joan den astean Sorluzen bailarako alkateek egindako bilera, horren lekuko. Bileran, ez zen Arrasateko ordezkariarik izan, baina badute zer esanik Maltzaga - Urbina errepedeaz.

Alternatiba gehiago

Pedro Mari Ruiz de Azua, EAko ordezkariaren ustez, Maltzaga - Urbina egitekotan Etxegaratekoarekin batera egin beharko litzateke, beste irtenbiderik badagoen arren. "Nire ustez, Zaldibar - Urbina egin beharko litzateke, Durango-Beasain errepedearekin lotuta Epeletik zehar; orain baino %60a merkeagoa izango litzateke eta gainera ingurugiroan eragin txikiagoa izango luke". Ruiz de Azua, peaje gabeko autopistaren alde agertzen zen.

Sakondu beharra

Xabier Zubizarreta alka-



Bergara-Arrasate errepedea txiki gelditu ei da.

teak, Maltzaga - Urbina bailarako herrien beharrei erantzunez egin beharko litzatekeela zioen, eta ez errepedeei buruzko planteiamendu huts bezala. "Errepede berria epeka egin beharko litzateke, premien arabera, bailara isolamendu historikotik ateratzeko eta ez nazioarteko errepidetzat hartuta. Hobeto definitu behar da eta hemen bizi garenoi begira diseinatu".

Peajedun autopista ez da egokia Arrasateko alkatearen ustez, bai ordea, bailari irteera ematea, Arrasate-Bergara errepedea egokitu eta garraio publikoa antolatzea.

Doantasa

Nekane Iglesias, Arrasateko PSOEko buruaren ustez, Maltzaga-Urbina autobidea izan beharko litzateke, dohainekoa gainera. "Zein egin le-

henago? printzipioz, eta plan orokorraren arabera, badirudi Etxegaratekoak lehentasuna zuela, baina bailarako argi dago hobe dela Maltzaga - Urbina egitea". Oraingo errepedea aprobetxatzea interesgarri jotzen zuen Nekanek, teknikoki posible izango litzatekeen jakin ez arren.

Bien garrantzia

EuEko ordezkariak, Aitor Orobengoak, proiektu bien garrantzia azpimarratzen zuen eta kontzesionariak zuen erantzunkizuna. "Proiektu biak ez dira kontrajarriak eta kontzesionariak ere zer esanik badu, bidea berak egingo zuela agindu zuen eta ez du bere hitza bete eta". Ingurugiroaz ere bazuen ardurarik, bailararen estutasuna kontuan hartuta, dauden proiektu guztiak gehiegi erasoko ez ote zuten galdetzen zuen.

Irtenbide moduan

Jose Mari Loiti, PNVko ordezkariaren ustez, lehentasun gerran sartzeak ez du zentzurik, baina "bailarak komunikazio aldetik dituen arazoei irtenbidea eman behar zaie. Orain hogeit urte autopista egiteko proiektua badago, egin egin beharko da. Peajearekin edo barik? bada erdibideko irtenbiderik ere" zioen.

MENDI taberna

Mendi da zure etxea


Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK



77 05 65



Udal Euskaltegian eskolak hasita daude eta AEK-Erdur Euskaltegian astelehenean hasiko dira.

Euskaltegietan oraingoz 479 pertsona euskara ikasten

AEK-Erdur Euskaltegiko eta Udal Euskaltegiko datuen arabera, Arrasaten euskara ikasten ari direnak, 479 pertsona dira.

Erdur Euskaltegian aurtengo ikasturterako 107 pertsonak eman dute izena, guztiak 2 ordutako klaseetan. Lehen urratsean 30 pertsona eta 3 talde daude, bigarrenean 28 pertsona eta 2 talde, erdi-mailan 17 pertsona eta 2 talde, goi-mailan berriz, 18 pertsona eta 2 talde. Azkenik, aipatu 10 lagunez osatutako alfabetatze talde bat dagoela eta EGA ateratzeko beste bat osatzen ari dela. Guzti horiei euskara irakasteko, 5 irakasle daude eta eskolak astelehenean hasiko dira.

Udal Euskaltegiak, berriz, klaseetan hasi diren 362 pertsona dauzka, 12-13 laguneko 29 taldetan banatuta. Egunean 54 eskolordur ematen dira, Euskaltegian, Eskola Profesionala eta Lankide Aurrezkian. Eskolak emateko, 15 irakasle daude egun osoz.

Horretaz gain, ordutegira eta erritmora egokitu ezinda, izena eman da baina taldeetan sartu barik daude 45 pertsona eta beste talde bat irakasle barik. Gainera, arrazoi desberdinak medio, 22 pertsonako talde bat beranduago hastekotan dago. Aipagarria da, jende gehiena iaz bertan ibilitakoa dela, euskara-maila dexentea lortu nahi duena.

Ordenadore bidezko Gestio Komertziala

Ibai Arte, Arrasateko Merkatal eta zerbitzuen elkarteak, ordenadore bidezko gestio komertzialeko ikastaroa antolatu du. Urriaren 9a bitartean izango da, goizez 8.30etatik 10.30etara eta arratsaldez, 14.30etatik 16.30etara. Matrikula 5.000 pezetakoa izango da eta interesatuok Mabel dendako Angel Alonsorengana jo dezakete. 14ko taldeak egingo dira.

Arrasatearrak Ferroforman

Irailaren 23tik 26ra Ferroforma feria burutu zen Bilboko Erakustazokan, zazpi pabiloitan banatutako 620 erakuslerekin. Erakusleen artean, Arrasateko zazpi enpresa: Alejandro Altuna, Dorla, Feliciano Aranzabal y Cía, Jose Maria Gallastegi y Cía, Metalurgica Cerrajera de Mondragón, Talleres AGA eta UCEM Cerrajera.

Ferian, 21.777 ikusle izan dira, 20.000 estatukoak eta 1.777 atzerritarrak.

IKASTARROAK

PSIKIATRIA LAGUNTZAILEA

- Titulu Ofiziala L. H. 1 (Azterketa bakarra)
 - Psikiatriako Praktikak L. H. 1 eta BBBrekin konbalidazioa
- Eusko Jaurlaritzak baimendua



Centro de Estudios Sanitarios

Loma Generala, 4 - 3. GASTEIZ Tfnoa: (945) 23 33 99

Masaia eta Gorputzeko Terapia Eskola

KIROTERAPIA

Gaiak

- Kiromasaia
- Reflexologia Podala
- Kirol Masaia

Ordutegia: astean bi egun
Goizez edo arratsaldez

Eusko Jaurlaritzak baimendua

MATRIKULAK:
Ce's Centro de Estudios Sanitarios



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



Mari Trini Fernandez



Eva Rico

Hogei egun dira bi neska gazte etxetik falta direla

Pasa den irailaren 11tik, euren etxetik falta dira Eva Rico eta Mari Trini Fernandez gazte arrasatearrak. Gurasoek esandakoaren arabera, aipatutako egunean, gazte biak eta Virginia izeneko beste lagun bat Elorrioko jaietara joateko auto-stopa egiten jarri ziren Muxibarko bidegurutzean. Hurrengo egunerako Virginia etxean zegoen, baina Mari Trini eta Eva ez dira ordutik agertu.

Dirudenez, Virginiak ez du gauza garbirik esaten eta gurasoen ustez, gezurretan ari da, kontraesan ugaritan erori omen da eta. Ertzantza eta beste erakunde batzuk arrasatear biak aurkitzeko ahaleginetan dabilta, baina badirudi oraindik ez dutela ezer zeha-

tzik jakiterik lortu.

Mari Trini Fernandezek 15 urte ditu, 54 kilo inguru pisatzen ditu eta 1.60 m. neurtu, desagertu zenean mantxadun praka zuriak, jertse zuria eta bota marroiak zeuzkan jantzita; Eva Rico, bere lagunaren adin berekoa da, eta desagertu zenean praka beltzak, ardo koloreko blusa eta bota beltzak zeramatzan soinean.

Gazte bien gurasoek asko eskertuko lukete Eva Fernandez eta Mari Trini Ricoren berri eman dezakeen edonork, Arrasateko Ertzantzara 79 71 99 telefonora edo Rico familiaren 79 61 90 telefono zenbakira deituko balu.

Gripearen kontrako txertoa hartzeko azken egunak

Pasa den irailaren 14an hasi zen gripearen kontrako kanpaina, eta datorren astean bukatuko da. Astelehean, urriak 5, Udalako eskolan 12etatik 12.30etara eta Meatzerreka eta Bedoñako soziedadean izango da, 12.30etatik 13etara eta 13etatik 13.30etara bigarrean. Asteartean berriz, Gesalibar eta Garagartzako soziedadean, 12etatik 12.30etara lehengokoan eta 12.30etatik 13etara Garagartzan. Gogora dezagun toki hauetaz gain, Anbulategian ere har daitekeela.

UNED-en matrikula zabalik

Bergarako UNED ikastetxean zabaldu da matrikula epea 92-93 ikasturterako. Izena emateko epea urriaren 31an bukatuko da. Bulegoa, asteartetik ostiralera arratsaldetan egongo da zabalik larunbatetan, berriz, goizez. Informazio gehiago lortzeko 76 13 42 - 76 13 43 edo 76 29 62 telefonoetara deitu.



DAMIKAR'T

Estetika eta
Ileapaintzaile Eskola
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52
EIBAR



UXARTE
Kafetegia,
gozotegia
Gaez irekita!!
JO TA KE!!

Bañez doktorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE



**MECA
RAPID**

- Ikusentzunezko mekanografia. 200 eta 300 pultsazio minutuko.
- Irakaskuntza garantizatua.
- Ordenagailu bidezko mekanografia.
- Master V. D. takigrafia.


Otalora, 3 1.C ARRASATE Tfnoa: 79 68 53

**PUB
HAIZEA**



**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**

77 05 65



Pasa den astebukaeran Garagartzako jaiak ospatu ziren. Jai giroa nabaria izan zen eta inguruko jende asko hurbildu zen bertara. Dantzaldietan jendeak asko aguantatu ez bazuen ere, igande eguerdian hain famatuak diren buskantzak jatera jende asko joan zen Garagartzara. Segi horrela, datorren urtean joango gara eta!



Joan zen ostiralean albiste berri bat izan genuen: Ifurrategi anaiak Everest-era heldu zirela. Egun bat lehenago, ikusten duzuen postal hau hartu genuen. Irailaren 9an idatzitakoa da eta Himalayatik

bidalitakoa. Beste hainbat letra arraroren artean honako hau jartzen dute postala agurtzeko: "Lan asko egin eta gorantziak denoi". Eurak behintzat harro egon daitezke egin duten lanarengatik. Zorionak!



Iñaki Jauregi eta Juan Luis Pagaldaik, Kenia eta Tanzania aldean pasa dituzte aurtengo oporrak. Abuztuko 16an, 5.885 metroko Kilimajaron izan ziren. Argazkian Juan Luis bertako gida batekin ikusten dugu. Hauek bai gizon ausartak!

"EDERTU"
ileapaindegia

San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

IBERDROLA
Bezeroaren onerako egina

Tfnoak: Bezeroak: 12 01 54
Larrialdiak: 12 01 62
Faxa: 12 19 25
Bulegoa: Urkizu Pasealekua, 7 EIBAR

TXITXINPE
BEREZITASUNAK

Kafea, ardoak, urdaitegia, fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
Tfnoa: 79 67 76
ARRASATE

IZEN PROPIOAK



Pasa den igandean EAJ-PNVk, Alderdi Eguna ospatu zuen Gaizeizko Salburuan. Argazkian Arrasateko txosnan izan zen jendetza ikusten da.

Aterkin artean igaro zuten eguna eta hotz ere egin zuen. Salda, buskantzak eta kafea agortu ziren moduan agortzeko eguraldi aproposa.

Antton Ayerbe eta Merte Canas ekainaren 20an ezkondu ziren. Ia ahaztuta izango dute beharbada egun hura eta ondoren izan dituzten oporrak, baina hala ere, inoiz ez da berandu zorianak emateko.



EPELDE

● **Jose Angel Barrutiabengoak** aurkeztu duen proiektua onartu du Udaleko Euskara Zerbitzuak beka jasotzeko. Jose Angel Barrutiabengoak izatez podologo da eta era berean Arrasate Zientzia Elkarteo lehendakaria. Beka eskuratu ahal izateko Euskal Filologo bat taldean sartzea jarri zaio baldintza gisa.

● **Xabier Albistur,** Donostiako alkate ohia, UCEM Korporazioko lehendakari izendatu dute. Irailaren azken astean izandako Bilera Orokorrean egin zen izendapena.

● **Aitor Rementeria,** elgoibartarra, saskibaloiko lehen mailan jokatzeko duen Imanol Rementeriarenekin anaia. Arrasate Saskibaloiko Taldeak fitxatu zuen denboraldi hasieran, baina dirudienek, ez du pentsa zitekeen errendimendurik eman eta taldea utzi egin du.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETAK

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

TXOKO TABERNA


Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE

.....
**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**
.....



ARRASATE



**BEROGAILU
ETA GAS
INSTALAZIOAK**

CLEGAS

Garro Jenerala, 2-1 ezk. Tfnoa: 77 00 77 ARRASATE

Romualdo Galdos, 22. P-13. Tfnoa: 11 40 64 EIBAR

Particular de Ategorrieta, 2 etxabea. Tfnoa: 27 39 20 DONOSTIA

ETXOSTE taberna


**MARITXU KAJOI EGUNEAN
BERRIZ ZUEKIN!!**

Olarte, 22 ARRASATE

Urriatik aurrera...

*asteburuetan
kanpoan afaltzeko*

EZ DIRURIK JAN.



KATAIDE
J A T E T X E A

Kataide poligonoa.
Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE

KATAIDE jatetxean

zeure neurriko afariak

dauzkagu.

Sabelerako eta poltsikorako.

1.300 PTA.

MARITXU KAJOI



JABIER

*H*emen da, urtero bezala, Maritxu Kajoi Eguna, jendeak gaua eta goiza esna elkartzen dituen eguna. Aurtengorako ez du aparteko berrikuntzarik ekarriko, arrasatear eta kanpotar guztientzat miraria egingo du eta jaia hasiko da. Hala ere, asteroko, eguneroko zein urtean behineko parranderoek ilusioz beteta hartuko dute Maritxu Kajoi jaiaren etorrera. Argazkikoak bezain fin harrapa zaitzatela goizak!



Iluntz eta Iturriotz
tabernak

ARRASATE



● Maritxu Kajoi egunerako, urtero urtero jende asko du kanpotik etortzeko ohitura. Argazkikoak ordiziarrak dituzue, aurtengo Maritxura kantu eta guztiz etorri zaizkigunak:

“Ordiziarrak gera ordiziarrak gera gu Agur herriari agur egiten diogu alaitasunik ordiziarrak badegu okasio ta lana alde batera utzi ta festa nahi dugu”.



● Arrakasta galanta izan zuen Maritxu Kajoi Nobenaixuak. Arratsaldeko 6.30etan ekin zioten ogi, gazta eta ardoaren eskaintzari, eta baita erantzun ona aur-

kitu ere, iluntzeko 9etarako, ardoa izan ezik, zer eskainirik ez zeukaten eta. Edan ez zen Errioxako ardoa, ohitura denez, Abaroan daudenei eraman zitzaien.

● Arrasatear askok bihotzean daramate Maritxu Kajoi, baita poltsikoan beste batzuk ere, Jose Agustin Letona eta Alberto Errastik esaterako. Bi hauek, abuztuan Venezuelara joan ziren. Han zeudela, Jose Agustin Letonak Bolivar mendia igo zuen, 5.007 metrotakoa eta Venezuelako “libertadorea”ren estatuari Maritxu Kajoiaren irudia jarri zion buru gainean.



● Maritxu Kajoioko Batzordetik kanporatua izateko arrazoirik funtsezkoena, Maritxu-ren mirariaren berri ematea omen da. Orain arte, batzorde horretatik ez dute inor bidali. Sekretuak ondo gordezten dituen jendea, beraz.

● Azken urteetan bezala, aurtengo Maritxu Kajoi txanpaina Codorniu etxetik ekarri dute. Lehen urtean Arabako Errioxatik ekarri zen, baina harrez gero, Codorniu izan da Maritxu Kajoi txanpainaren banatzailea. Guztira 400 txanpain kaxa erosi dira, 4.800 botila.

● Maritxu Kajoioko eskapularioengan ere izan dute eragirik inflakzioak eta krisi ekonomikoak; izan ere, iaz hogeidurotan saldu ziren eta aurten berrogeian. Hiramila eskapulario inguru enkargatu dira aurtengorako.

ARIANE

Emakume-gizonezkoentzat barruko jantziak

Erdiko kale, 14 ARRASATE Tfnoa: 79 27 33

Fernando Arana

.....
*“Dotore jantzi barik,
 ezin daiteke Maritxu Kajoi jaia bizi”*

Ferando, Maritxu Kajoi jaien antolaketa taldeko partaide izateaz gain, bere kuadrilan jai honi festa berezi baten ikutua ematen diote.

— Gaur jantziko duzu trajea, ezta?

— Bai, horixe. Ia jai hau sortu zenetik hartzen dut parte eta urtero jazten dut trajea gainera. 12 edo 13 urte izanogo dira ordutik.

—Eta antolatzaile bezala ardura asko duzu?

— Hor ere aspalditik nago sartuta, duela hamaika urte sartu nintzen. Egunean bertan ez da ardurarik ez lanik izaten, baina aurretik gauza asko prestatu behar izaten da: egitaraua, gau horretako ekintzak eta urtero izaten diren beste sorpresak. Hortik aurrera ezin dizut gehiago kontatu, gaur gauean jakingo duzue zertan pasa dugun denbora.

— Eta zure kuadrilan egingo duzue zer berezirik?

— Beno, urterokoa.



Arratsalde partean denak bildu, txikiteo ofiziala egin eta ondoren afaltzera. Afal ostean, jai giroaz gozatzeko, kalera irten eta tabernetatik bueltatxo bat egin.

— Noiz arte geratuko zarete?

— Hori gauak berak esango du. Ezin daiteke esan noiz arte iraunduko dugun. Tabernetatik tabernarako buelta hori motza edo luzea izan daiteke. Baina azken urtetan gosaltzera joaten naiz etxera, eta aurren ere gauza bera egi-

tea espero dut, ohitura zaharrrak eta gainera onak direnak ez dira galdu behar eta.

— Urte hauetan kaleko giroa aldatuz joan da?

— Bai, nire ustez asko aldatu egin da. Onera edo txarrerara aldatu den ez dakit esaten baina bai, aldatu da. Uste dut Arrasatearro eskuetik joan zaigula Maritxu Kajoi gaua. Hasiera batean herritarrentzat zen jaia, kanpora zabaldu da eta gaur egun jende gehiegi etortzen da, kanpotik autobusak ere etortzen dira eta herria kanpotarrez betetzen da. Horrek ere izan dezake bere alde ona, ezta?

— Urteko jairik politena da?

— Bai, urte askoan hurbiletik bizi izan dut eta gau hau oso barruan daramat. Gainera egun bakarra da, gau bat, ez da Santamasak bezala edo San Juanak bezala, egun askotan luzatzen den jaia. Horregatik ere badu Maritxu Kajoi bere zentzu berezia.

PROGRAMIE

Maritxu Kajoi

5etan: Itxafleruek. Errukixena egune dotore jantzitte hasten ez dana.

5etan: Auskalo taldien eskutik, neskatila-mutikuekdako kale animazifue Plazan.

6.30etan: Mondraueko gaiteruen laguntzaz erraldoi eta buruhaundiek. Atzalde eta gau osuen zihier txarangie ibiliko da kalien.

7etan: Txikiteo ofizialaren hasierie.

8etan: Gaberako indarrak eskatu eta urteko parrandak eskertuz herriko kuadrilek Maritxui einddako lora sorten eskeintza.

11.30etan: Rekalde Anaiekin trikitixa jaialdixe Sebero Altube plazan.

12etan: Modu danetako soinuek nahastu daittezen, Txatanuga Futz Band ondarrutar orkesta mundialaz dantzaldixe Herriko Plazan.

2.30etan: “Maritxu Kaba” espektakuluen presentaziñue. Sevillatik Maritxu Kajoi etorritako “kantao” autobuskada batek “Esto-92” obrie eskeiniko doskue.

Goixeko 5etan: Sokamuturrek ordu honeittan dauken arriskue ikusitte, eta aholku ugari kasu einez, Udaletzeko arkupetan txokolatie txurruuekin banatuko da tripa barrenok gozaketako.



GOZOTEGIA

Erdiko kale, 28
 Tfnoa: 79 15 34
 ARRASATE

LORATEGUI

c/ iturriotz. 7
arrasate
tel. 790467

**AUPA
MARITXU!!**



LORAMENDI BIROLAK



Presta zaitez
negurako:

- Forro polarrak
- Txamarrak
- Txubaskeroak
- Txandalak
- Zapatilak

● Zorione Balanzategi

Manchesteren gaztelera- zko lektore

**Manchester-eko Salford unibertsitatean gaztelera-
zko lektorea da Zorione. Iaz han izan zen la-
nean eta aurrean ere asmo
bera du. Hango ohiturak,
bizimodua, unibertsita-
teko giroa... ezagutu
nahi izan ditugu.**

**— Zer dela eta joan zinen
Manchesterera?**

— Pasa den urtean unibertsitate horretara idatzi eta lan hori eskatu nuen. Hango ordezkaria Hondarribira etorri zen eta berarekin elkarrizketa pertsonala izan ondoren, postu hau eskaini zidaten.

**— Eta zein da egiten duzun
lana?**

— Unibertsitatean gaztelera-
zko lektorea naiz. Bi
gara lan horretan eta hizkun-
tza bezala gaztelera aukeratu
duten ikasleekin praktikatzea
da gure funtzio nagusia.
Gauza praktikoak egiten di-
tugu, asmoa hitz egitea da eta.
Baina askotan arazoak ere
izaten ditut, gaztelera-
zko gramatika ez dut oso
ezagutzen eta. Askotan ba-
dakit gauza bat gaizki dago-
ela baina ez dut jakiten zerga-

tia azaltzen. Niretzat erraza-
goa da ingelesezkoa azaldu eta
esplikatzeko.

**— Eta zenbat denbora
egoten zara han, etorri barik?**

— Hango unibertsitatean
trimestreak hamar astekoak
izaten dira eta ondoren lau
asteko oporrak izaten ditugu.
Ikasleen oporrak izaten ditut,
Gabonetan eta Aste Santuan
lau aste pasatzen ditut hemen.

**— Eta zelakoa da uniber-
sitateko giroa han?**

— Hemengoaren aldean
oso desberdina. Nik Deustun
ikasi nuen eta konparaziorik
ezin egin. Manchesteren tal-
de txikietan egiten da guztia,
harremanak askoz ere estua-
goak dira, ikasle eta irakasle
arteko erlazioa egunerokoa
da. Adibidez, askotan jaiak
edo "Party" deitzen direnetan
denok biltzen gara, ikasle eta
irakasleak. Eta ez irakasle
gazteekin bakarrik, baita
besteekin ere.

**— Eta bizimodua oso des-
berdina da?**

— Bai, hasieran ez nin-
tzen ohitzen, hain desberdina
zen dena: janaria, ordutegia,
hiri handi bateko bizimodua,
azken finean. Etxe handi ba-



tetan bizi naiz beste sei lagu-
nekin, etxe biktoriano bate-
tan. Horretaz gain, hango jen-
dea hemengoa baino liberala-
goa da. Unibertsitateko joate-
ko, urrutien dagoena aukera-
tzen dute, ez da hemen beza-
la.

**— Arrasaterekin kontak-
tua ez duzu galtzen, ezta?**

— Ez, horixe. Astero as-
tero ARRASATE PRESS hartzen
dut eta bertako albisteak be-
hintzat jarraitzen ditut. Eta
familiarrekin ere astero hitz
egiten dut telefonoz. Lagu-
nekin ere, telefonoz ez bada
eskutitzen bidez, kontakturik
ez dut galtzen.

**— Eta etxean zer esaten
dizute urtea han pasatzen du-
zulako?**

— Nire ama ohituta dago.
Hiru anai arreba gara eta de-
nok egon gara kanpoan. Nire

ahizpa Suizan, anaia Afrikan
eta ni gazteena naizenez,
amak bazekien kanpora joa-
teko asmoa nuela eta ez zidan
ezer esan, ohituta dago.

**— Hangoek Euskadi eza-
gutzen dute?**

— Ez, oso gutxi. Ikasle
batzuk Arrasaten egon dira
ingeleza ikasteko egin diren
elkartrukeetan, baina ge-
hienak ez dute Euskadi eza-
gutzen, ezta entzutez ere.
Gaztelera aukeratu dutenak
Espainiara etortzen dira hiz-
kuntza praktikatzera eta uni-
betsitateak berak topatzen die
tokia, lana egiteko eta bizi
izateko. Toki horiek Zarago-
za, Madril eta antzekoak izate-
ten dira.

**— Etokizunerako zer asmo
duzu?**

— Datorren urte hau
bukatu ondoren, Arrasatera
bueltatzea espero dut. Gainera
marketing-eko masterra
ikasten ari naiz eta horrek ere
hemen lana aurkitzen lagun-
tzea espero dut.

**● "Ikasle-irakasle arteko
erlazioa oso estua da hango
unibertsitatean"**



Haur eta gazteei zuzendutako egitaraua prestatu da.

Komiki eta komikilarien jaia

Maritxu Kajoi bixamone-rako, arrasatearrek ohizko ajea kentzeko aurten ezohizko aukera izango dute. Izan ere, Napartheid aldizkariaren Komiki-jaia burutuko da, Euskal Herri mailan euskaraz egiten den subentziorik gabeko komikiarren jaia.

KOMIKI JAIA

Joan den astean, *Napartheid*-eko partaideek prentsaurrekoan adierazitakoaren arabera, komikiaren 8. eta 9. aleen aurkezpena aprobetxatuz, komikijaia egitea erabaki zuten; baita, jaiaren bidez, komikia zer den ezagutarazteko aprobetxatu ere. Antolatutako jaiak, Komiki-Jaia du izena, baina kultur-esparru gehiago ikutuko ditu.

Dena dela, Maritxu bixamona gogorregia izan ez dadin, antolatzaileek jaiaren hasiera arratsalderako jarri dute, bi ataletan banatuta, arratsalde partekoa umeei zuzendua eta gau partekoa, berriaz, gazte eta helduei.

Egitaraua Goñiko udalekuean egindako pastoralaren antzezpenerenkin hasiko da. Ondoren, koloreen abestia, Arrasateko udalekueko kantua. Bihekotarren antzerki-taldeak hankapalu dantza egingo du; gero, trikitilariak, dantzariak, bertsolariak... izango dira, herriko talde eta jendearen partaidetzarekin.

6ak - 6.30ak aldean, Monterron azpiko zelaian beste mota bateko festa hasiko da. Bertan, komikilariak, marrazkilariak, serigrafia mahaiak, karikaturak.... Zelaiko

ekintzak 8ak aldean bukatuko dira, baina jaiak izango du jarraipenik, trikitilariekin batera kalejira egingo da eta. Herriko kaleetan zehar ibili eta gero, 9etan gutxi gora behera, afaria Monterron azpiko zelaian, ogitartekoak, taloa eta sagardoarekin eta 10etan rock-kontzertua: *Patagonia*, *Balang Djembe*, *Balardi Balerdi*, *Pottoka* eta *Ehun Kilo* taldeekin. Kontzertuan zehar, talde batetik bestera aldaketa egiterakoan, diapositiba emanaldiak izango dira.

ALE BIKOITZA

Komiki-jaia *Napartheid*-eko ale berriaren aitzakiaz prestatu da, Nafarroa Oinezarako kalean izango den ale bikoitzaren aitzakiaz. Iruñeako alkateak zentsuratu eta bahitutako komikia izango omen da, 8. eta 9. aleak biltzen dituen. Oraindik inprentan dago eta, "Gato Baska" izeneko gehiagari mardul bat eramango du, 40 orrialdekoa. Gainontzeko 68 orrialdeak sorpresa ugariz beteko dira, poster bat esaterako. Normalean, *Napartheid* kale kontuetako historia eta iskanbilen islada izaten da; oraingoan Iruñean okupatuta zegoen Lore-Etxearen derriboaz.


Napartheid-eko ale bikoitzean, Euskal Herri osoko komikilari askok hartu dute parte. Prentsaurrekoan esandakoaren arabera, *Napartheid* egiten dutenen asmoa ahalik eta jende gehienak parte hartzea izango litzateke, "Ateak zabalik ditugu, ahal duenak komikiak bidal ditzala eta argitaratu egin zaizkio. *Napartheid* euskal komikilari gazteen harrobi izango delakoan gaude".

NONDIK NORAKOA

Hemendik aurrera, harrobi izan nahi omen du *Napartheid*-ek, baina orain arte zer izan ote da?

Napartheid-eko sustarrak

Komikia Euskal Herri osoan zabaldu eta euskara hutsez egiten den bakarra izanda, ez du inolako dirulaguntzarik jaso"



Prensaurrekoa AED aurrean burutu zuten Napatheid-ekoek.

aurkitzeko, duela bost urteko Iruñeara jo behar da, “Vascuencea”-ren legea onartu zeneko garaira. Lege hori zela eta, Iruñeako bi gaztek “Soweto, Euskal Herria baino hobeto” jartzen zuen pegatina kaleratu zuten, nola-bait Nafarroa erdialdean euskarari dirulaguntzarik ez ematea salatuz. Pegatina hartu eta bi gazteak Baigorriara joan ziren, Nafarroa Egunera. Pegatinak saldu eta ateratako 40.000 PTAKin, fanzine bat argitaratzea erabaki zuten, *Napatheid* izenekoa. Izen horrekin, Nafarroa eta apartheid-a lotzen ziren, euskarak Nafarroan izan zuen tratamendua ghetto-etan ematen denarekin parekatuz.

Ordutik Napatheid-en 7 zenbaki kaleratu dira. Hasieran Nafarroako gaiak marrazten ziren, Nafarroari begira zegoen eta ez zuen handik irteten. Laguntza-eza eta diru faltarengatik, urtebeteko etenaldia jasan zuen Napatheid-ek. Bigarren etapan, esparrua zabaltzeko egin zen, Euskal Herri osoko komikilarien partaidetza hasi zen eta baita banaketa hedatu ere.

N
apatheid izen-
ak, ‘Vascuencearen legea’k
Nafarroan eragin
zuen egoera
isladatu nahi
zuen, alde bate-
tik Nafarroa eta
bestetik apar-
theida, ghetto
bat balitz beza-
la”

Garai batean izan zituen diru falta eta laguntza-ezak ez zaizkio oraindik urrundu Napatheidi, Euskal Herri osoan zabaltzeko eta euskarari hutsuz egiten den komiki bakarra izanda, oraindik ez du inolako subentzio edo dirulaguntzarik jasotzen. Egoera hori lotsagarritzat jotzen zuten prentsaurrekoan eta horregatik harpidetza-kanpainak bultzatu beharra aipatzen zuten, “jendeak izena emanez gero, salmenta eta komiki-

ren esistentzia ziurtatuko genukeelako. Dirua izanez gero, ez dago arazorik, marraztu eta inprentara eraman besterik ez”.

ANTOLAKETA

Nafarroako esparrua gaintzeaz gain, Napatheid-en baitan bost urtetako bizitzan gauzak dexente aldatu dira, ez bait da gauza bera bi lagun artean argitaratutako komikia egin edo toki ezberdinetako jende askok egiten duena koordinatu. “Hurrengo zenbakia pentsatzerakoan, gaia aukeratu eta komiki argitaratzeko egun bat jartzen da; oraingoarekin esate baterako, La Pilarica eguna jarri genuen, Hispanitate Nazkagarriaren eguna. Marrazkilariei garaiz ekartzeko esaten diegu, epea iritsi baino hila-bete lehenago. Jendeak komikiak ekarri, dirua eta beharrezko arabera erabaki zenbat orrialde izango duen, maketatu, koordinatu zertxobait zentzua emanez, inprentara eraman, hartu eta sasi-amateurki, tabernetan eta horrela banatzen dugu. Guzti hori bileretan erabakitzen da, noski, eta bileretara nahi duena joaten da. Hori bai, 8-10 lagunek osatutako talde finkoa dugu eta 35en bat marrazkilariren laguntza”.

Zergatik Arrasaten?

“Komiki-Jaia egiteko, eguna eta lekua garrantzitsuak dira. Orain arte, ekintza guztiak Iruñean egin izan dira eta aurreko kanpoan egitea erabaki zen.

AEDk eta Udalak eskaini duten laguntza eta Maritxu Kajoi izateak Arrasate toki egokia izan zitekeela pentsarazi zigun. Maritxura Gipuzkoako jendea badator eta alde zuzenetik hango dagoela badaki, geratu egingo da.

Horretaz gain, Arrasaten dagoen euskararekiko giroa ez da nabari beste toki batzuetan. Maritxu Kajoi moduko jai asko daude, baina beste tokietan ez litzateke posible izango, AED eta euskararen aldeko jarrera barik ezin izango genukeen egin. Udaberrirako Iparraldean egitea daukagu buruan, nahiz eta komikiak Iruñean gauzatu, Euskal Herri osokoa dela aldarrikatu nahi dugu eta”.

Bailara osoa Leintz Espedizioa noiz etorriko


Hamabi urte pasa dira Martin Zabaleta hernaniarrak Everest-a igotzea lortu zuenetik. Orduetik, makina bat euskaldun abiatu da Himalayarantz eta baita munduko gailurrera iristeko alperriko lanak egin ere. Felix eta Alberto Iñurrategi atxabaltarrak izan behar azkenik, irailaren 25ean hamabi urteko lehortarekin bukatu zutenak.

Lehen euskaldunak Everest-a zapaldu zuenetik irailaren 25a arte igaro diren 12 urteek, argi uzten dute igoera horren zailtasuna zenbaterainokoa den. Bi atxabaltarrentzat ere ez zen erraza izan; azken fax-ean adierazitakoaren arabera, gailurrera egindako erasoak lau egunetako iraupena izan zuen: lehen bi egunetan, aurrez presatutako 2. eta 3. kanpamenduak erabili zituzten. Hirugarren egunean, igotzen ari zirela 4. kanpamendua montatu zuten, bertan lo egin eta lau garren egunean gorantz. Azken eguneko igoerak hamalau ordutako iraupena izan zuen, eguraldi onarekin baina haize zorrotzez, irailaren 25ean arratsaldeko 3.30etan iritsi ziren gailurrera.

Joxe Ramon Zubizarretak Himalayatik bidalitako azken berrien arabera, guztiak behekanpamendua desmontatzen


egongo lirateke eta kongelazio arazo barik, nahiz eta hasieran hori zabaldu. Arazo bakarra, Albertok izan zuen,

jaitsieran erori eta belau bategan min hartu zuenean, baina zorionez ez da gehiagorik gertatu.



Jose Ramón Zubizarreta

36 urte, eskoriatzarra. Almen Ikastolako irakaslea, Euskal Herriko mendi eta Pirineotan ibilitakoa.



Felix Iñurrategi


25 urte. 1989. urtean, Yosemiteko, "Gran Capitán" hormaren eskalada, 1990. urtean Pumori (7.161 m.), 1991. urtean Makalu (8.481 m.), eta orain Everest. Inge-niari agronomoa da.



Alberto Iñurrategi

24 urte eta mendian, anaiaren historial bera. Everest-a oxigeno barik igo duen gazteena. Maestria ikasi eta Ederlanen egiten du lan.

VE ECUADOR
Bidaiak
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

PENALTIAK

● **RUGBYKOAK SEVILLAN**

Arrasate Rugby taldeko jokalaria, Sevilla-ra joan ziren joan den asteburuan lagun arteko partidua jokatzeko. Ostiralean arratsaldeko 6etan irten, eta ia lorik egin gabe, goizeko 6etan iritsi ziren Expo-hirira. Iritsi, atsedean piska bat hartu eta eguerdiko hamabietan partidua jokatzeraz; normala denez, horrelako bidaia egin eta gero galdu egin zuten. Arratsaldean hiria eza gutzera joan ziren eta gau-erdi galduta ibili ziren, dirudienez hotelaren auzoa aurkitu ezinik. Azkenean, taxia hartu behar, bestela oraindik han daude.

● **TXUS BRIZUELA EZKONDU**

Arrasate Saskibaloitaldeko entrenatzaile gasteiztarra, Txus Brizuela Gasteizen ezkondu zen larunbatean. Ezkontzan, saskibaloitaldeko bost jokalaria, Brizuelaren laguntzailea eta Arrasate Saskibaloitaldeko presidentea eta emaztea izan ziren. Eztei-bidaian Kolonbiako Cartagena de Indias hirira joan dira. Txus Brizuela Kolonbian dagoen bi astetan zehar, Jabi Zurbanok zuzenduko du saskibaloitalka.



Uretako eskian dominadunak Arrasate eta Aretxabaletan

Arrarora badirudi ere, Arrasateko anai-arreba batzuk eta Aretxabaletako neska batek, Guadalajarako Entrepeñas urtegiaren burututako Estatuko Uretako Eski Txapelketan domina bana lortu dute. Alebin mailan, Zuriñe Velez de Mendizabal arrasatearrak, hirugarren postua eta ondorioz brontzezko domina lortu zuen. Infantin mailan, Camila Jauregi atxabaltarrak urrezko domina eta juniorretan Ekain Velez de Mendizabalek, arrebak bezala, podiumeko hirugarren kajoira igo zuen. Hor hirurak argazkian.

◆ ◆ ◆
Nola ikusi duzu zure talde ohia?

Ba, lehenengo partidua izateko, nahiko ordenatuta ikusi dut eta bi fitxaketa berriak oso gogorak iruditu zaizkit; horrek esan nahi du harrobia martxan dagoela.



URRI URIZAR
Emakumezko Mondrako jokalaria ohia

EMAITZAK

Pirola

Gipuzkoako liga:
Emaitzak.
Alebinak: Arrasate 18 - Eskoriatza 7
Infantilak: Arrasate 18 - Eskoriatza 6
Kadeteak: Arrasate 18 - Eskoriatza 10
Jubenilak: Eskuz-esku: Arrasate 2 - Soraluze 18
Bikoteka: Arrasate 22 - Soraluze 13
Nagusiak: Eskuz-esku: Arrasate 12 - Eibar 18
Bikoteka: Arrasate 22 - Eibar 13
Paletaz: Arrasate 18 - Amasa 35
Pala motza: Arrasate 38 - Amasa 40
Hurrengo partidua:
Urreak, Iturripen, igandean 11etan.
Palakoak, Musakolan, larunbatean 11.30etan.

Atletismoa

Aretxabaletako lehen milia urbanoa:
Infantil gizonzkoak: Felix Sanchez 2. eta Urko Bedia 3.
Infantil emakumezkoak: Amaia Ramos 1.a.
Kadeteak: Matin Davila 1. a eta Aritz Barrutia 4.
Juniorrak: Gabi Saavedra 2. eta Alex Saavedra 3.

Saskibaloia

Bigarren maila:
Gizonzkoak: Arrasate 97 - Tabirako 94
Emakumezkoak: Juven 83 - Arrasate 57
Jubenilak: La Salle 91 - Arrasate A 102
Arrasate B 60 Bergara 81
Gizonzko kadeteak: Mundaiz 38 - Arrasate A 77
Arrasate C 59 - Zahor 27
Hurrengo partidua:
Emakumeak: Arrasate - Ibiltari bidaia, larunbatean 18.00etan.

Futbola

3. maila: Mondra 1 - Touring 1
Ohorezko liga: Mundaiz 0 - Mondra 1
Lehen mailako jubenilak: S. Andres 0 - S. Prudentzio 1
2. mailako jubenilak: Arrasate 4 Soraluze 1.
Kadeteak: Ordizia 2 - Arrasate 1.
Emakumezkoak: Mondra 2 Bortziriak 1
Hurrengo partidua:
Jubenilak, S. Andres - Aretxabaleta, igandean 11.45etan.



ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna Zelulitia Zelulopolisiaren tratamendua

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

Gripearen aurkako kanpaina

egua edo udazkena etortzeaz bat, udan izkutatuta izan diren gaisotasun batzuk berriro indar osoz agertzen dira. Hauen artean ezagunetarikoa bat gripea da.

Honek populazio osoa jo dezakeen arren, gripeak arriskuren batean jar ditzaten pertsona taldeek bakarrik hartu behar dute gripearen aurkako txertoa:

- Alde batetik, eritasun kronikoren bat agertzen duten pertsonak (birika eritasuna, diabetea, kardiopatia, gibel eritasuna e.a.)

- Bestetik, 65 urte baino gehiago dauzkaten pertsonak.

1918 gripe izurriteak egundoko mina egin zuen aipatutako taldeetan. Edozein taldetan baino hamar aldiz

gogorragoak izan ziren kalteak hauetan. Harira dator esatea gripeak ez daukala tratamendurik. Hartuz gero, agertuko diren sintomen aurka gutxi egin ahal bada, gaisotasunaren aurka ere ez.

Horregatik, eta tratamendu bakar bezala, Gasteiztik Osakidetzak eta hemengo lehen mailako asistentzia taldeak, aurtengo gripearen aurkako kanpaina antolatu du. Kanpaina honen helburuak, griperik ez pasatzea eta harripatuz gero, hain gogorra ez izatea.

Txertoak, nahiz anbulate-



gian nahiz auzoetan dohainik har ditzakezue:

- 65 urtetik gorako pertsonak, nortasun agiria, eta gizarte segurantzak kartila aurkeztu behar dute.

- Gainerako arrisku taldeek, euren sendagilearengana jo behar dute, dagokien bolantea jasotzeko.


Txertoa jarri ondoren, batzutan besoa gorri dakizuke. Nahiz eta arraroago izan, lehen bi egunetan sukarrak piska bat, ondoeza e. a. ere ager daitezke.

Hemendik, eta bukatzeko, zuek gripea eta katarroak bereiztea nahi dugu. Txertoa hartu arren katarroak har ditzakezue, baina katarroa eta gripea ez dira gauza bera. Gripea askoz gogorragoa da, sukarra eta batez ere artikulaziotako minak haundiak izaten dira.

ADOLFO RUIZ DE AUSTRI



- UME-MODA
- GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKOEN LENTZERIA
- KORTSETERIA



NEREA

Erdiko kale. ARRASATE Tfnoa: 79 13 43

EKIN Emakume Taldeak

ikasturte berri honen aurrean
programazioaren berri eman
nahi dizue.

■ OINARRIZKO YOGA

Urriaren 7tik abendura arte.
Emalea: Jose Luis Armentia.

■ SUKALDARITZA

Urriaren 6tik 28ra bitartean.
Emalea: Alberto Elorza,
Zelai-Zabaleko sukaldaria.

■ ETXE APAINKETA

Azaroaren 3 eta 10ean.
Emalea: Xabier Arregi.

■ LOREEN ZAINKETA

Azaroan, 17 eta 24ean.
Emalea: Jakoba Rekondo.

■ GABONETARAKO JAKI BEREZIAK

Abenduaren 15ean.
Emalea: Alberto Elorza.

Ikastaroak AEDn izango dira.

Ordua: arratsaldeko 3.30etan.

**Informazio gehiagotarako jo AEDko
lokaletara edo dei egin 79 54 46
tfnora**

ANIMATU ETA PARTE HARTU!!!



Tiburtzio Arregi: Ipuin-kontalariaren altxorra

Datorren astetik aurrera orrialde honen zati bat izango dena aurkeztera gatozkizu. Gure aitonamonen ipuin-kontaketarako grazia berreskuratu nahi izan dugu ARRASATE PRESSEN, eta horretarako, Tiburtzio Arregi mondragoe-tarezagunak idatzita utzi zuen altxorra argitara ematea erabaki. Berak asmatuak, benetan gertatutakoa... auskalo! baina egundoko graziaz eta aberastasunez kontatutako ipuin eta gertaerak dira edozela ere. 'Biribiltxo eta Marime', 'Ataltxo', 'Biximodu eta Babalora'... eta beste pertsonaia asko hurbilduko dira orrialde hauetara, tiburtzioren ahotik. Sutondoko, sukalde bazterreko ipuinak izango dira.

BASERRITAR ILUSTRATUA

1895ean jaio zen Tiburtzio Kataide baserrian, eta 1978ko urtarrilan hil 81 urte zituela. Mutikotan Arano Maixuaren eskolan ibili zen. 12 urte bete zituelarik, Zerrajerako Tornilleriara sartu, eta ondoren Elmako fundatzaileetako izan zen. Eskoriatzako Nordebizi baserriko Paula Lizziagarekin ezkondu eta zortzi seme-alaba izan zituen. Madalena kalean bizi



ziren Arregitarak, "36 rue Madalen". Despistatu akaberrabakoa, eta zabar xamarra zela esaten du bere alaba Amaiak. Irakurzalea zen, liburuaren aurrean jarri eta munduaz ere ahazten den horietakoa eta euskaltzale eta abertzalea, berriz, porrokatua. "Hori geutarra dok" esaten zekien norbaitengatik abertzale eta euskaltzale zela esateko. Baina ezer bazen, kontuzalea zen Tiburtzio, kontuzalea eta kontuak kontatzeko berbetan eta esamoldetan aparteko grazia zuena, eta jatordu ondorengo tertulia luzeetan, neguko arratsalde eta ilunkaratan, bere baserriko artozuriketako ipuin eta gertaerak kontatzen zizkien seme-alaba eta auzokoei. Joxe Etxaburu eta Martinaren ehi-zako istorio eta esagerazioak



gogoratzen ditu Amaiak bereziki. Bere bederatzilobentzako idatzita utzi zuen kontu bilduma da hemen argitara emango duguna.

PASADIZOAK

Bere izakera despistatuaren adibide moduan, pasadizo bat kontatu digu alabak: "Jubilatu eta gero, San Prudentzioko senitarteko baten

entierura joan beharra suertatu zitzaion, Bergarara. Denboraz mugitu zen baskalostean, autobusa hartuta, eta goiz zebilela eta, San Antonion jeitea bururatu zitzaion, gorpuarekin batera oinez handik joateko. Erlojurik ere ez, eta 'hemen ez ditek pasetan' egiten ei zuen bere artean. Espaloian gora mogitu zen eta batarekin eta bestearekin egon eta ailegatu da halako baten San Pedrorra. Sartu eta mezatan, eta dena ezezaguna, nonbait, eta galdetu du zeinen hileta zen hura eta 'ez hau urtemeza da' erantzun. Santa Marinaran izango zelakoan irten eta haruntz joan eta irteten topatu ei zituen, meza bukatuta".

Mutikotan gorraizea edo ei zeukan eta operatu egin zuten —lehengotako operazioa inolaz ere—. Trenean bueltan zetorrela Maltzagan entzun ei zuen lehen aldiz kukua, 11 urte zituela. Amak, berriz, bere izakeraz kezkatuta, erabat normala ez ote zen edo, kaldelak eskaintzen ei zizkion Santa Ritari.

METAFORAK

Umeez ulertzerik komeni ez zena esateko, metaforak erabiltzen abila zen Tiburtzio; neskaren bat haurdun zegoela esateko "Ba, hara, sarrisarrri iturrira joan eta pitxarra apurtu" eta antzekoak.

"Bere denborarako modernoa zen, aurreratua oso. Emakumeok ere ikasi egin behar genuela esaten zuen eta gurean ez zen eskolara ezerगतिक ere huts egingo", gogoratzen du Amaia Arregik.

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



aitzgorri

LARRU eta LARRUKIAK


Salvatierrako larrukiak
60km.tako beharapenarekin.

Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE

G

aragartza 1965 eta 1968 bitarteko argazkiak dituzu hauek, irakurle. Urte mordoxka baten dantza taldea izan zen Garagartzan, auzoko neska-mutilek osatua. **Izaskun Zuazubiskar, Jesusa Ugarte, Maribel Uribarren, Mertxe Iribekanos, Arantza Barrutia, Maite Uranga, Maria García eta Isabel García** ziren. Mutilak, berriz, **Patxi Ayastui, Josu Iria, Antton Zumalde, Josu Aranbarri, Julio Orobengoa, "Coto", Xanti Aranbarri eta Xabier Iria**. Erakusle moduan Aramaixokoak izaten zituzten, dantzan egin eta txistua jotzeaz gain: **Ayastui anaiak, Bixente Mondragon, Axpe...**

Auzoko neska-mutilak arduratzen ziren San Migelak antolatzeaz orduan ere. Urte haietan 25-30 mila PTA inguruko aurrekontua izaten zuten jaiek. Auzoko mutil ezkongabe bakoitzak hogeitauro jartzen zituen (neskek eta ezkondukek ez). Dantzan egingoan txapela pasatzen zen eta jaiak hasi aurretik programa atera eta



etxetik etxe banatzen zen, baserriko borondatea batuaz. Udalak eta tabernariak ematen zutenarekin osatzen zen programaren gastuak ordaintzeko lain.

Kontutan izan behar da duela urte gutxi arte

Garagartzan lau taberna zeudela: Murrixena, Otxoarena (gerra aurretik Bolerona) eta Perikiñena, gaur egun Belun dagoen tokian. Buzkantzaren jai familiarikoa ohitura izan da beti, konbidautzak eman

ziolarik, auzotar batzuren ustez, fama hori. Etxeetatik kanpo tabernetan eutsi zitzaion ohitura horri, eta tabernak desagertzean, auzotarren sozietatean mantentzen da jaien bereizgarri hori.



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Bost ikaslek etxebizitza behar dute Arrasate inguruan.** Tfnoa: 88 67 23.
- **Etxebizitza salgai San Andresen.** Foruen Plaza, 3 5 Ezk. Tfnoak: 79 47 28 eta (945) 44 51 99.
- **Donostian pisua alokagai ikasleentzat.** Alto de Rondon. Ikasturtean bakarrik. Tfnoa: 79 43 56. Itxaro.
- **Bi irakasle pisu bila Arrasaten.** Dei egin egunez 79 04 11 edo gaeuz 88 66 23 tfnora. Arantzazu.
- **Ikasle batek logela behar du Arrasaten.** Dei egin 28 75 70 tfnora.
- **Zaragozan pisua osatzeko neska euskalduna behar dugu.** Tfnoak: 79 28 71 eta 75 19 98.

Lana

- **Klase partikularrak ematen dira urte osoan.** Talde txikiak. Pertsonal espezializatua. Dei egin arratsaldez. 79 93 03.
- **OHOk klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 27 37.
- **Neska prest OHOk klase partikularrak emateko.** Dei egin 79 68 18 tfnora.
- **Ingelesa ikasi nahi baduzu, hemen duzu aukera.** Talde txikiak. Tfnoa: 77 05 77.

- **Neska prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko** edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 72 92.
- **Alemanezko klaseak ematen dira.** Dei egin edozein ordutan 79 78 75 tfnora.
- **Lanak makinan pasatzen dira.** Tfnoa: 79 78 75
- **OHOk klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 38 58.
- **Neska euskalduna behar da Gasteizen** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: (945) 24 48 52.
- **OHOk klase partikularrak ematen dira** eta euskarako maila guztiak. Tfnoa: 77 04 98. Marije.
- **Edozein lan mota egingo nuke.** Dei egin arratsaldetan 79 50 30 tfnora. Jose Migel.
- **Neska prest umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Dei egin 10etatik 3etara. Tfnoa: 76 05 63.
- **Esperientziadun sukaldari- laguntzailea** lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 87 27.
- **Matematikazko klase partikularrak behar dira** larunbat arratsaldetan. Dei egin 79 93 52 tfnora gauetan eta galdetu Leiregatik.
- **Italianoko irakasle partikularra behar da.** Tfnoa: 79 21 72. Blanka.
- **Matematikako klase partikularrak behar dituz:** trigonometria, deribadak, limiteak, integralak... Dei egin guez 79 50 53 tfnora. Jon.

Salerosketak

- **Umeentzako seaska eta kalean ibiltzeko karrua salgai.** Tfnoa: 79 77 79.
- **9 hilabeteko bideo-joku kotsola (Siega Master System II) salgai.** Egoera ezin hobean. Kotsola gehi lau joku prezio onean. Harremanetarako jo (94) 658 33 78 (astebukaeratan).
- **Bideo kotsola (Jamiko) + 150 jokuko kaseta + 4 jokuko bi kasette + bi kontrol mando = 15.000 PTA.** Dei egin 7etatik aurrera 79 41 91.
- **Bost lagunentzako kanping-denda salgai.** Tuboak aluminiozkoak ditu. Tfnoa: 78 04 89.
- **la berria dagoen akordeoi beltza salgai.** Tfnoa: 79 80 91 (Gauetan).
- **Derbi FDS-a egoera onean salgai.** Dei egin 79 96 76 tfnora edozein ordutan. Josu edo Javi.
- **Logela berri bat dut salgai.** Tfnoa: 79 10 51 (Goizetan edo gauetan).

Denetarik

- **Katu gorritxo bat galdu da abuztuan San Andresen,** Foruen Plaza inguruan. Zerbait jakinez gero, abisatu: Foruen Plaza, 2-3. esk. edo dei egin 11 84 21 tfnora. Danel.
- **Urrezko pultsera perla zuriduna galdu dut Arrasaten.** Dei egin gaeuz 77 09 43 tfnora.

Aste Gazte

Autobusak

- Donostia eta Bilboko Unibertsitateerako autobusak asteleheneetik aurrera martxan jartzen dira. Goizeko 6.30etan Arrasateetik irtingo dira, eta eguerdiko 2.30etan itzi. Interesatuok hilero eskuratu beharko duzue dagokion txartela. Ikasleentzako prezioak: Bilbora: 12.000 PTA. Donostiara: 15.000.
- Langileek ere badute bus-zerbitzu berezi hauek erabiltzeko aukera. Prezioak:

15.000 eta 20.000.

- Asteleheneetan joan eta ostiraletan itzultzeko aukera ere bada. Interesatuok izena eman ezazue Gazteentzako Informazio Bulegoan.

Alojamenduak

- Donostian, Gazteizen edo Bilbon 92/93 ikasturterako pisu bila zabilzatenoi: Bulegoan jaso dugu alokatzaren diren logela eta pisuei buruzko informazioa.

Bekak

- Lan esperientzia ez duten Unibertsitate-titulodunentzako bekak. Tituluek 88/89 ikasturteetik aurrerakoak izan behar dute.

Ikastaroak

- Euskal Dantza Ikastaroa. 14 urtetik gorakoentzat. Ostiraletan, 7.30-9. Urriaren 16tik Abenduaren 18ra.
- Alboka ikastaroa. Larunbat goizez, azarotik maiatzera. Matrikula 2.000 PTA. Plaza mugatuak.

“ Ez dut ulertzen nola umeak hain argiak izanik, helduok hain ergelak garen. Heziketa izango ote...”


Alejandro Dumas semea



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

Joseba Etxagibel Monte tabernakoa



- Jantziko duzu trajerik gaur? Ez, korbata bakarrik.
- Korbata ala pajarita? Korbata gehiago erabiltzen dut.
- Frak-a ala trajea? Jantzi behar dudanean, trajea.
- Alkondararentzat kolore bat? Urdina.
- Jaia tabernan ala kalean pasatuko duzu? Tabernan lanean.
- Ze ordutan joango zara etxera gaur? Gaur ez, bihar goizeko 10ak edo 11ak izango dira taberna garbitu orduko.
- Eta zer edango duzu? Txanpain piska bat.
- Urteko jairik politena da? Ez dakit, niri Santamasak asko gustatzen zaizkit.
- Jende gehiegi etortzen da ala ez? Bai, asko, gehiegi.
- Dantzan egiteko asmorik? Ez, lana egin behar dut eta.
- Elkarrizketa hau irakurriko duzu? Bai, noski.
- Argazkietan ondo irteten duzu? Ez, nire ustez ez.
- Ezkontzako erastuna erabiltzen duzu? Ez.
- Eguraldi ona egingo du? Espero dezagun baietz.
- Egin dizuten azken oparia? Kolonia bat.
- Ze kotxe duzu? Renault-a.
- Kirolik egiten duzu? Bai, noizean behin ziklismoa.
- Trikitixa ala tangoa? Izatez argentinarra naiz, baina trikitixa gustatzen zait.
- Kafea ala ebakia? Ebakia.
- Eta koparik? Ez.

BERTSOAK

MARITXU KAJOI

1
Berriz Maritxu Kajoi iritzi delako, traje dotoreenak atera beharko. Nahiz eta izan lodi nahiz eta izan flako, bikoteari heldu besotikan bapo eta goazen kalera denok guapo-guapo.

2
Badakigu Maritxu portatuko dela eta mirariren bat egingo duela. Ardoak sortuko du jai-giro itzela, gu pozik egon arren urtero bezala, ez dezagun ahaztu denok ez gaudela.

AMAIA AGIRIANO



ALDERDI EGUNEAN

Salburuara presentzian edo gogoz joan zinetenoi

ESKERRIK ASKO

Yolanda Ibañez

'Artisautza ez da baloratzen'

Orain urte asko, hamar beharbada, Yolanda eta Idoia ahizpak artisauen munduan sartu ziren. Gaur egun desengaino handiak izan ondoren, beste lan batzutura jo dute.

— Yolanda, noiz eta zergatik sartu zinetan mundu honetan?

— Urte asko pasa dira ordutik, hamar beharbada. Artisauzko gauzak asko gustatzen zitzaizkigun denboraldi hartan eta horregatik larrua, platinga, latoia eta antzerako materialak hartu eta gauza desberdinak egiten ikasi genuen. Gero herriko jaietan kalean postuak jartzeko ere hasi ginen, eta egia esan, orduan nahiko ondo saltzen zen. Gaur egun gauzak asko aldatu dira.

— Onera ala txarrerara aldatu dira?

— Txarrerara, noski. Hain aipatua den krisi horren eragina artisau munduan ere igarri da eta beste edozein arlotan baino sakonago gainera. Gaur egun enkarguzko gauzak bakarrik egiten ditut eta erabiltzen ditugun materialak larrua eta haria izaten dira batez ere.

— Ze motatako tresnak erabiltzen dituzu lan hauek



egiteko?

— Ez dut makinarik erabiltzen. Dena eskuz egiten dut, bestela ez da artisau lana. Uribarri auzoan dudatan tailerretik jende asko pasatu da eta batzuk artisauak. Hauek oso harrিতa geratu dira nire lan egiteko modurengatik. Nik beti esan izan dut, artisau lanak artisau metoduekin egin behar direla eta ez makinekin, horregatik ez dut makinarik erabiltzen.

— Non ikasi duzue materiale horiek egiteko prozesua?

— Nire kabuz ikasi dut dakidan guztia. Idoia behin Madrileko eskola baten egon zen, tapizen ikastaro batetan baina ikasteko metodorik egokiena esperimentatzea da eta

bakoitzak frogatzea, material desberdinak hartu eta frogak egin.

— Ikastaroak ere eman dituzue, ezta?

— Bai, batzutan eman izan ditugu ikastaro batzuk. Jende askok jarri izan du interesa, baina batez ere etxekoandreak eta jende nagusiak.

— Gaur egun asko saltzen duzue?

— Ez, oso gutxi. Gizarte honetan behar dena izen famatua izatea da, bestela ez da ezer saltzen nahiz eta onena izan. Aurten Madrilen izan den tapiz erakusketa baten egon gara eta esan dudana han frogatuta geratu zen. Izan famatua duen emakume baten erakusketa zen eta egia esateko tapizak ez ziren hain onak baina "txurroak" bezala saltzen zituen. Arrasaten, ordea, tapiza egiten ordu asko pasa ondoren, bezeroak ez dio behar adina inportantzia ematen, oso garestia iruditzen zaie. Bai, askotan esaten digute oso politik direla baina erosteko orduan ez zaigu inor hurbiltzen. Gaur egun bizi izateko beste gauza batzutura jo dugu eta aitaren tailerrean nago lanean, zerbaitetatik bizi beharko dut eta.

LABURRAK

◆ Argazkigintza ikastaroa

Ikatz argazki dendak argazkigintza ikastaroa antolatu du. Hiru klase desberdin izango dira: oinarriko argazkigintza, 12 ordutan argazki kamara erabiltzen erakutsi nahi da, 8 ikasleen taldeak izango dira eta 5.000 pezeta ordaindu beharko da. Zuri beltzeko ikastaroa 12 ordukoa izango da, 8 ikasleko taldeak izango dira eta 8.000 PTA ordaindu beharko da. Argazkigintza errekreatiboan 36 ordu, 8ko taldeak eta 30.000 pezetako matrikula.

◆ Gazte Zerbitzuko ikastaroak

Arrasateko Gazte Zerbitzuak argazkigintza eta euskal dantza ikastaroak antolatu ditu. Argazkigintzakoa urriaren 13tik azaroaren 12ra bitartean izango da eta euskal dantzena urriaren 16tik abenduaren 18ra.

◆ Argazki lehiaketa

Lankide Klubak antolatutako lehiaketa honetan Lankide Aurrezkiko bazkide eta behin behin behin behin langileek har dezakete parte. Gaia librea izango da eta argazkiak urriaren 15 eta 30 bitartean entregatu beharko dira. Lehiaketan bi modalitate bereizten dira: gai bereko lau argazkiren bilduma edo argazki diferentek, baina gehienezko kopurua lau argazkikoa da. Sariak 5.000 eta 2.000 PTA bitarteko sariak egongo dira. Argazki guztien erakusketa egitea ere pentsatzen da. Parte hartu nahi duzuen guztiok Lankide Aurrezkiko zentralera bidali lanak.

**UDALAITZ
TABERNA**

Erdiko kale, 3 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 61



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

LAURA

GAZTE MODA

Erdiko kale, 30
ARRASATE
Tfnoa: 79 57 20

MITOLOGIA

Milaka urtetan lur honetan bizi izatearen ondorioz garatu da, gaur egun galtzeaz edo aldatzeko bidean dagoen euskal kultura tradizionala; kultura horren zati handia osatzen du mitologiak.

Arpeetako gure arbasoen pentsaeran du oinarria euskal mitologiak: arpeetan bizi diren abere itxurako jeinuak, zaldi, zezen, ahuntz... Eguzki, ilargi eta bestelako zerutiar mitoak, kultura indoeuropearraren eraginez baneratu ziren beranduago. Eta are beranduago, erlijio erromatarrekin eta batez ere kristautasunarekin, aintzinako mitoak moldatu eta eraldatu egin ditu.

Halere, eragin hauek ez dute euskal mitologiaren originaltasuna ukatzen. Izan ere, originaltasuna ez da norberak zer-bait berria asmatzea bakarrik, eguneroko gauza arruntei nork bere ikutua ematea ere bada. Originaltasun horretan, badago zer aztertu eta zer idatzi. Tarteka tarteka, txoko honetan arlo hori landuz joango gara, azalitik bada ere, denon jakingarri gerta dadin.

LIDER LARREA

'Prebentzio', Gurasoen Heziketarako Mahaiaren aldizkari berria

Guraso eta seme-alaben arteko harremanak sendotu, gurasoentzat erreferentzi puntuak jarri eta erreflexio-ara eramateko, *Prebentzio* izena daraman aldizkaritxoak kaleratu du Gurasoen Heziketarako Mahaia. Mahai hori Arrasateko ikastetxe eta guraso elkar-teen artean osatutako taldea da, Lizarra Elkartea eta Udaleko Drogomenpekotasunen Aurkako Zerbitzuaren laguntzarekin.

Prebentzio aldizkarian azalduko diren gaiak heziketaren zentzu zabala ikutuko badute ere, berebiziko garrantzia emango zaio osasuna eta drogomenpekotasunen aurrean egin behar den heziketa lanari; horregatik, beharrezkotzat jotzen da guraso guztien lana, seme-alaben ondoan egon behar dutenak direlako.

Printzipioz, *Prebentziok* ez du maiztasun jakinik izango, urtean lau bat aldiz kaleratuko dela pentsatzen bada ere. Aldizkaria koloretan eginda dago, lau orrialde

Prebentzio

1. zka GURASOEN HEZIKETARAKO MAHAIA 1992ko iraila



Gurasoen Heziketarako Ikastaroak Prebentzioa eta Osasuna

- ✓ **Ikastaroak, Gurasoen Heziketarako Mahaiak antolatuta zirenean**
- ✓ **147 guraso apuntatu ziren**
- ✓ **10etik 4. aitalak**
- ✓ **Balorazioa oso ona da, gehiengoak jarraipena eskatu zuten**
- ✓ **Helburu nagusiaren, gurasoak erreflexiora eramatea**

zintzosi bertara hurbiltzeko gomidapena. Gombidapen arrakastatsua gainera? Baita. Zeintzuk ziren helburuak? Baita. Gurasoen arteko harremanak sendotzea, eta era berean, guraso horiek euren seme-alabekin dantakatu irautu aurretik.

Besteik, informazioaren bidez guraso horientzat erreferentzi puntuak jarzea; hau da, etxean familiarekin jokatu nola hobetu daitekeen erakustea.

Hirugarren helburu bat, eta agian garrantzitsua, guraso horiek erreflexiora eramatea.

Gurasoen Heziketarako Mahaia antolatutako lehenengo iniziatiba izan dugu hau: *Gurasoen Osasun Heziketarako eta Drogomenpekotasunen Prebentziarako Ikastaroa*.

147 guraso apuntatu ziren, eta 100etik gora galdutu ziren bazterroa bukatu arte.

10etik 6. maila genituen, eta azpimarragarria da ere guraso gehienek parte-hartze aktiboa izan zutela, hau da, identifikatu egin zirela ekitaldi ezberdinetan.

Ikastaro bukatzerain antolatzaileek balorazio oso ona jaso zuten; horren lekuko, gehiengoak jarraipena eskatu zuela.

Gurasoen Heziketarako Mahaia antolatutako ikastaro horiek izpirituz bala erakutsi zuten, herri osoari luzatu



EDITORIAL

Quiénes somos...
De dónde venimos...
A dónde vamos...

Esto que tienes en tus manos es **Prebentzio**, una revista dirigida a los padres, que surge del esfuerzo de un grupo de padres de Arrasate vinculados a los centros escolares a través de las asociaciones de padres, juntas rectoras, escuela de padres, etc. Gracias a la colaboración municipal, formamos, todos juntos, la Mesa de Educación de Padres.

Nuestra pretensión es sencilla, y nos gustaría poder compartirla contigo.

Prebentzio quiere ser un medio para aportar y proponer informaciones, reflexiones y opiniones a los padres, sobre todo en temas de educación para la salud y prevención de las drogodependencias.

Los padres, sin ser los únicos, podéis ser agentes importantes de prevención y promoción de la salud, porque compartís una oportunidad diaria, la educación de vuestros hijos.

Para avanzar un poco más en este objetivo, esperamos que **Prebentzio** sea, ante todo y sobre todo, un medio útil.

dauzka eta inprentan 4.000 ale bota dituzte; banaketa ethez-etxe egingo da. Guztira, 300.000 PTako aurrekontua dauka, gutxi gorabehera. *Prebentzioko* lehen zenbaki honetan, aldizkariaren aurkezpena, Gurasoen Heziketarako burututako ikastaroen

balantze txiki bat, gazteei gurasoei buruz egindako galdeketa, gurasoen artikulua pare bat, Donostiako Gizakia Helburu proiektuaren lehendakariari egindako elkarrizketa, eta Gurasoen Heziketarako Mahaiko bi gurasori egindako beste bat dira irakurgai.

Araba Etor., 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32



Koop. E.

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

ALEMANA

FRANTSESA

INGELES

Mila guztiak. Umeak, gazteak, helduak. Goizoz eta arratsaldez.

ZATOZ GURE BULEGOETARA!

(Goizeko 9etatik Tetara eta arratsaldeko 4etatik 9etara)



PEUGEOT · TALBOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA


MEKANIKA, TXAPAETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

• ESAERA ZAHARRA •

*“Alperra beti
nekatua,
mozkorra beti
egarriak”*

• JEROGLIFIKOA •



**Zer erosi duzu janari-
dendan?**

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10							
11						12	
13					14		
15		16			17		
18					19		

Horizontalak 1. Sendagaitz. 9. Nafarren herrialde izen. etorbide. 10. Trenbidean ibiltzen da. 11. Agronomian aditua. 13. Begirada. 14. Gehiegi. 15. Hamabi hilabete. 17. Berba. 18. Kostalde urdineko hiria. 19. Gipuzkoako Udala.

Bertikalak 1. Ona izatearen nolakotasuna. 2. Sapa. 3. Arazo. 4. Trebetasuna. 5. Ez eme. 6. Hondatzailea. 7. Dei hitza. 8. Gustua. 12. Afrikako errepublika. 16. Atzoko kontsonanteak.

• HOROSKOPOA •

Aries Ez ezazu ardo gehiegi edan Maritxu Kajoi egunean, bihar futboleak jokatzeke.

Taurus Lan eskeintza ederra egin du Udalak, Maritxu ondorengo egunetan kalegarbitzale gisa lana egiteko. Horra aukera!

Gemini Gaupasa ostiralean? Ez egin gero horrelakorik, ama enteratzen bada...

Cancer Gaur ezkerreko hankarekin jeiki zara ohetik. Kontuz atarteko eskailetan!

Leo Aberats bihurtzeko zorian zaude! Jokatu ezazu gogotik loterian.

Virgo Oraingo egunak ez dira zure bizitzako onenak izango. Badaezpada ere, katu beltz bat ikusten duzunean egurra ukitu!

Libra Pertsona bat izango duzu ostiralean Seberon zain. Ile-gorria gainera!


Scorpio Hurrengo astean asterketa bat egingo dizu matematikako maisuak. “Katea” atera aurretik behintzat jaso duzu abisua.

Sagitaris Kontuz ibili poltsarekin. Lapur asko dabil azken egunotan.

Capricorn Zure lehioko kristala hautsi dezakete kaleume batzuk. Argi ibili!

Aquarius Lasai! Egun batez arropa zikinakin ibiltzeagatik ez zaizu ezer gertatuko.

Piscis Bihar zure lo goxoa amets ikaragarri batek zapuztu lezake.




Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

• JOSETXO SAGASTA "SAGASTITA"REN GOMENDIOA •




"Drogak eta halako zerrikeriak utzi eta kiroletan sar daitezela gomendatuko nieke gaurko gazteei. Arriskudun kirolak, parakaidismoa adibidez. Osasuntsua eta hunkigarria da, norbere buruaz satisfazio handia lortzeko bidea". Sagastitik bi urte daramatza mundu honetan eta edozeini gomendatuko lioke. "Ezin da deskribatu 2.500 metrotatik salto egin eta 1.000 metrotera heltzean parakaidasa zabaltean sentitzen dena. Gauza asko pasatzen da burutik. Eta bestela, egin aproba!!".

• PROGRAMAZIOA •



- 4 Igandea**
9.10 Mondragol.
- 5 Astelehena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me.
6.30 Dokumentala.
8,8.30, 9 Berriak.
9.30 Mondra Sport.
10 Asteko zinea:
Printzesa ezkongai.
- 6 Asteartea**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
6.30 Dokumentala
8,8.30, 9 Berriak.
9.30 Larrugorritan: Gaztetxea.
10 Asteko zinea:
Printzesa ezkongai.
- 7 Asteazkena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
6.30 Dokumentala
8,8.30, 9 Berriak.
9.30 Pareak jokuan.
10 Asteko zinea:
Printzesa ezkongai.
- 8 Osteguna**
1.30 Eguerdiko Berriak
8,8.30, 9 Berriak.
9.30 ATBketan.
10 Asteko zinea:
Printzesa ezkongai.
- 9 Ostirala**
1.30 Eguerdiko Berriak
8,8.30, 9 Berriak.
9.20 Monterrock.
10 Asteko zinea:
Printzesa ezkongai.

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •


JEROGLIPIKOA
Bi aza.
7. To. 8. Zaporea. 12. Mail. 16. Tz.
3. Ater. 4. Ganorea. 5. Ar. 6. Inolea.
Bertikalak 1. Ontasun. 2. Sargon.
Niza. 19. Aia.
So. 14. Lar. 15. Urte. 17. Ele. 18.
Fartoa. 10. Tren. 11. Agronomo. 13.
Horizontalak 1. Osagaitza. 9. Na-
GURUTZEGRAMA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Elektroinjekzio
Zerbitzua




ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

NAROKI
Urrezko bitxiak

NAROKI
Opariak, Jostailuak, Liburuak,
Paperdegia
Erdiko kale, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 47




Gipuzkoa: bihotz-bihotzean



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián